

## **ARRASATEKO AZOKAKO MARKA-IRUDIAREN LEHIAKETA IREKIA**

### **1. SARRERA:**

Arrasateko azoka biziberritzeko prozesua, II. fasean da jadanik. Hainbat eta hainbat eragile eta norbanako ari da, udaleko ordezkari eta teknikariek batera azoka biziberritu guran.

Gaur egungo azoka indartzeaz gain, hau da, 1.go sektorea sustatu, bertako postuak eta azoka egunak indartu, ... beste ildo berritzaile batzuk gehitu nahi zaizkio, espazioari multifuntzionalitatea emanaz eta beste kolektibo batzuentzat leku natural zein erreferentziala bihurtu nahian.

Horren harira dator, azokako marka-irudiren lehiaketa. Talde desberdinek, azokak propio bere irudi-marka izan behar duela ondorioztatu dute eta hau ere, prozesu osoa bezala, era parte-hartzaile edo irekian egin nahi da.

Lehiaketa honen deitzailea, Arrasateko azoka biziberritzeko prozesuko talde eragilea da, herriko eragile desberdinez, prozesuko partehartzaileez eta Arrasateko Udaleko ordezkari politiko zein teknikoz osatua.

### **2. HELBURUA:**

Lehiaketa honen helburua, Arrasateko azokako markaren irudia sortuko duten diseinu eta sormenezko lanak hautatzea da. Ondoren, irudi hau euskarri desberdinetan erabili ahal izateko: azokan bertan, kaleko seinaleketan, produktu zein euskarri desberdinetan (merchandising) eta publizitatean.

### **3. PARTEHARTZAILEAK:**

Lehiaketa honetan edozein pertsona har dezake parte.

### **4. LANAK:**

Aurkeztuko diren lanak originalak izan beharko dira, eta azokak dituen balio zein sortzen dituen emozioak islaturiko irudi berri nahiz erakargarriak oinarrituak izan beharko dira.

Irudi-logoa definituko duten ezaugarriak honakoak izango dira:

- Identifikatzeko erraza (Facilmente identificable)
- Erabilera anitzekoa (versátil)
- Funtzionala (funcional)

- Bereizgarria (diferenciadora)
- Moldagarria (adaptable)

## **5. LANEN FORMATUAK:**

Baldintza bakarra, irudi edo marka horrek "Azoka Plaza" testua jasotzea izango da.

Dimentsio zein formatuari dagokionez librea da, baina egileak horien ezaugarriak idatziz adierazi beharko ditu, eta irudi edo markaren deskripzio txiki bat ere jaso beharko du lanak.

Diseinu bakoitza, koloretan eta kolore bakarrean aurkeztu beharko dira hurrenez hurren.

Paperean aurkezteaz gain, euskarri digitalean ere aurkeztu beharko dira lanak.

Irudi bakoitza, muntaia bisual baten bidez honako 4 euskarritan aplikatu beharko da:

- Herriko seinaletika.
- Azokan (sarreran, kanpoaldean, barrualdean, ...)
- Poltsa berrerabilgarrietan
- Publizitatean

## **6. PROPOSAMENEN AURKEZPENA:**

Proposamenak paperean eta euskarri digitalean (editatzeko formatuan eta pdf-an) aurkeztu beharko dira, bi gutun-azal itxietan:

- A gutun-azala: Parte hartzailearen datuak sartu beharko dira bertan: izen-abizenak, helbidea, harremanetarako telefonoa, e-posta ,...)
- B gutun-azala: Proposatutako diseinua (koloretan eta kolore bakarrean) eta diseinu horren aplikazioak (eskatutako 4 euskarrietan), diseinuaren deskripzio laburrekin batera.

Gutun-azalek elkar identifikatzeko lema bat izan beharko dute gainazalean.

**Aurkezteko lekua:** Proposamenak BAZ (Biztanleen Arreta Zerbitzua) -en aurkeztu beharko dira.

**Aurkezteko epea:** 2013ko maiatzaren 6a, astelehena, 19:00ak baino lehen.

## **7. EPAIMAHAI:**

Epaimahaia honako partaideek osatuko dute:

- Arrasateko Udaleko ordezkari 1.
- Arrasateko Udaleko teknikari 1.
- Azoka prozesuan parte hartzen dabiltzan herriko 2 eragile.

- Azokako gaur egungo postuetako ordezkari 2.
- Komunikazio munduko beste pertsona 2.

#### **8. SARIA:**

1.000 euroko saria jasoko du hautatutako lanak.

Ondoren, irudi hau, Arrasateko azokako marka edo logo bezala euskarri desberdinetan erabiliko da.

#### **9. BALORAZIO KRITERIOAK:**

Arrasateko Azoka egokien identifikatu eta islatzen duen lana baloratuko da. Kontuan hartuko dira, originaltasuna, sormena eta kalitate artistikoa.

Era berean, proposamena euskarri desberdinetara nola egokitzen den baloratuko da.

Kontutan hartuko diren irizpideak:

- Diseinua: erakargarria, originala eta argia.
- Balioa: artistikoa, komunikatiboa eta sinbolikoa.
- Identitatea: azokaren baliotan oinarritua eta sentipenen adierazpena.
- Moldagarritasuna: beste logo batzuekiko desberdina eta euskarri desberdinetarako dituen aukerak.

#### **10. ERABAKIA:**

Epaimahaiak gehienez hiru asteko epea izango du, proposamenak aurkezteko epearen amaieratik aurrera.

Epaimahaiak 2 proposamen aukeratuko ditu eta ondoren 2-3 asteko epean, Arrasateko espazio desberdinetan jarriko dira aukeratutako 2 proposamenak, herritarrek beraien bozka eman dezaten (azoka, BAZ,...).

Irabazleari erabakia helaraziko zaio lehenik eta ondoren publikoki agertuko da hautatutako lana.

#### **11. SARITU GABEKO LANAK:**

Epaia eman ondorengo egunetik, 30 eguneko epean jaso ahal izango dira lanak BAZ-en (Biztanleen Arreta Zerbitzua). Epea amaitu ondoren egileek lanak jaso ez badituzte, aintzakotzat hartzen ez dituztela ondorioztatuko da.

## **12. LEGE BALDINTZAK:**

- Egilea lanen originaltasun zein argitaragabetasunaren erantzule da.
- Irabazleak, 15 eguneko epean (behin erabakia komunikatu zaiola), formatu desberdinetan erabili ahal izateko materiala aurkeztu beharko du ( euskarri digitala, artxibo editagarriak,...) .
- Egileari markaren garapenaren inguruko gomendioak eskatu ahal izango zaizkio.
- Jabetza intelektual eskubideak: saria jasotzeak irudiaren gaineko lagapen eksklusiboa eta mugagabea dakar. Era berean, irabazlearen irudiaren egokitzapenak egin ahal izango dira euskarri desberdinetarako.

Arrasaten, 2013ko martxoaren 20an

“GUreztatu” prozesuko talde eragilea